



MUNGIako SUKALKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

Sukalkia okela-gisadua da, ez erregosia.

Gisadu hori egiteko Bizkaiko sukaldaritza tradizionalako jeneroak erabiltzen dira. Mungiarrok 50 urte baino gehiago daramaguz horren gogoko dogun jarduera gastronomikoa antolatzen.

1. OSAGAIK:

- **Behi-okelea:** faldea, zankarroia edota agujea.
- **Patatak** (okeleagaz batera prestau behar dira, haren gustua eta aldearena hartu daien); neurriak beti baserriko gisaduetan erabili dana izan behar dau, forma biribilduan zein laskeatuan.
- **Piper txorixeruak** (sano garrantzitsuak dira gisaduen gusturako eta kolorerako).
- **Kinpulea** (garrantzitsua gisaduen gusturako eta kolorerako).
- **Idarrak, Zanoriak, Tomateak, Berakatz, Oliba-orioa edo txarri koipea, Gatza eta Ardao zuria.**
- Plater hau prestatzeko bakotzak gustuko dauen **okelasaldea** erabili ahal dau.

2. EGITEKO ARAUK:

- Sukalkia, txapelketa-gunearen barruan egin behar da.
- Sukalkia egiteko ezin da presinoko lapikorik edo arin prestatzeko lapiko berezirik erabili.
- Txapelketara aurkezten diran kazuelek gitxienetik **sei** laguntzako beste jateko euki behar dabe.
- Gomendioa: (sua egurragaz egiteko asmoa badozu), behetik apur bat gorago igonda dagozan suak edo barbakoak erabiltea gomendatzen dogu; izan bere, horixe da Uriguen Parkeko beheko debarra jagoteko modua.

barria

3. GAZTEEN PARTE-HARTZEA:

- Gazte koadrilei sukalkiko jai transmititzeko helburuagaz (giro oneko jai herrikoia, koadrila desbardinak biltzen dituana eta gure herriko kultura gastronomikoa gorai patzen dauena) **kategoria bi** antolatuko dira: betikoa eta **30 urtetik beherako** koadrilentzako.
- Kazuelak aparte baloratuko dira eta aparteko zerrendak egingo dira.
- Kategoria bakoitzak bere sariak izango dauz.
- Sukaldari aditu talde bat ibiliko da gazteei laguntzen, identifikatuta egongo dira eta gazteak dagozan lekuetatik pasatuko dira behar dan laguntza emoteko.

4. IZEN EMOTEA:

Kazuelen izen-emotea debaldekoa izango da eta **10:00 eta 11:30** bitartean egin beharko da, bertan parkean.

5. KAZUELEN AURKEZPENA:

Kazuelak **13:00etatik 14:00etara** aurkeztu beharko dira.

6. PUNTUAZINOA:

Epaimahaiak irizpide honen arabera puntuatuko dauz kazuelak:

- Gisaduen aurkezpena: 5 puntu gehienez.
- Gustua: 10 puntu gehienez.
- Puntua: 10 puntu gehienez.

7. SARI BANAKETA:

Sari banaketa **17:30ean** hasiko da, betiko tanborradearen ostean. (GURE AMETSA Txistulari Elkarteagaz).

8. EGURRA ETA ZABORRAK:

- Antolakuntzak ez dau banatuko sua egiteko egurrik, bakotzak ekarri bekarko dau berak behar dauen egurra. (sua egurregaz egiteko asmoa badozu).
- Antolakuntzak zaborrak sailka banatzeko eta batzeko boltsa egokiak banatuko dauz. Sukalki eremuan zaborrak sailkatuta botateko edukinontzi bereziak egongo dira horretarako gune baten. Gomendatzen dogu jazkeran tradizioari eustea, hau da, gona edo fraka urdinak eta kamiseta zuriagaz joatea.
- Mesedez, batu zabor guztiak eta itxi erabilitako eremua garbi eta txukun.

9. GALARAZOTA DAGO:

- Ibilgailuak sartzeta eta ibiltea Sukalki eremuaren barruan, horretarako baimena antolatzaileek eta Larrialdietako zerbitzuetaoek baino ez daukie.
- Ezin da gunerik itxi Sukalki eremuaren barruan.

10. IZOTZA:

Sukalki Lehiaketaren eremuaren barruan goizean zehar, izotza erosi ahal izango da. (txosnan).

Oharrak:

- **Lehiaketa honetan parte hartzeak beronen oinarri guztiak onartzea dakar.**
- **Antolatzaileek euren esku izango dabe oinarri honeei lotuta sortu leitekean edozein zalantza, ezusteko edo interpretazinoaren aurrean erabagiak hartzeko eskubidea.**
- **Era berean, lehiaketa ondo bideratzeko egokitzak jotzen daben edozein aldaketa egiteko eskumena bere izango dabe antolatzaileek.**

Antolatzailea: LARRAMENDI IKASTOLA.

EKINTZA OSAGARRIAK

- 10:30** KALEJIREA DULTZAINEROakaz.
- 11:30** KALEJIREA GURE AMETSA Txistulari elkarteagaz.
- 12:30** KALEJIREA Trikitilariakaz. (IDOIA eta ROBERTO).
- 14:00** KALEJIREA TXIKURI FANFARRIAGAZ
- 19:00** Foruen plazarainoko KALEJIREA hasiko da TXIKURI fanfarrriagaz.
- 22:00** Foruen Plazan, ERROMERIA.
- 24:00** SAN PEDRO JAIEN AMAIERA, Udaletxe aurrean Marijatarri agur esan eta painelak erreko dira.

